

txoritxoari mokoka

Arecivoko mezua

Areciboko (Puerto Rico) irrati-teleskopiotik mezu bat bidali zuten 1974an espaziora, Lurretik kanpo gutxieneko matematika eta astronomia jakintza duen izakiren bat balego, planetaren oinarritzko informazioa izan zezan. Zientzialariek datu txiki bat utzi zuten sartzeko: pertsonen ugalketa sistemaren nondik norakoak. Horrelako ezkutaketa jokoak, hala ere, alferrik, une oro planetan sortzen diren irrati eta telebista seinaleek espazio zabala zeharkatzen baitute, sexu ariketa ageriko eta guzti. Es-



EGUNKARIA
Ezkundu berri den bikote bat.

tralurtar batek gure etxeko telebistari begiratzean zer pentsatuko ote lukeen, batek baino gehiagok galdetu dio bere buruari. *The Simpsons* saio famatuan, estralurtar talde bat *talk-show* batean jarri zuten, ohiko umore garratzez jantzita. Asteazken gauero gogoratzen ditut nik Arecibo eta Lisa Simpson, Andoni Ferreño *Todo por amor* saioa ikustean. Kameren aurrean euren bizitza aldatuko omen duen erabaki bat ordu erdian hartu behar duten pertsonak, ezkongai histerikoak, itxurakeriaren gorazarre patetikoak... Valerio Lazarovek, beste behin, mezu atzerakoiak arrakastarekin ezkondu ditu telebistan. Ugalketa sistema ona dela ez didazue ukatuko.

Amagoia Iban

LABURAEAN



ETB
Julio Ibarra aurkezlea.

'Teleberri' izan da urrian gehien ikusitako albistegia Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

Astelehenetik ostiralera, urriko egun guztietan ETB2ko *Teleberri* izan da gehien ikusitako albistegia Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, edizio guztietan. Eguerdian, ikusleen %23,9 lortu ditu, hots, 131.000 ikusle batez beste, eta gauean, berriz, %23,8, alegia, 160.000 ikusle batez beste.

Iragarkien kopuruak gora egin du urrian Espainiako telebistetan

Espainiako telebista kateek iragarki gehiago eman dituzte aurtengo urrian, iazkoan baino. Bukatu berri den hilean, iazkoan baino 6.871 *spot* gehiago emititu dituzte Madrilgo egoitza nagusia duten kateek. Urrian guztira 212.997 iragarki pantailaratu dituzte.

'Prime time' ordutegian dokumentalak emateko eskatu dute Iruñeko TeleNatura jaialdian

Telebista kate nagusiek *prime time* ordutegian dokumentalak eman beharko lituzketela esan zuen atzo dokumentalen zuzendari Luis Miguel Dominguezek, Iruñeko TeleNatura jaialdian. Izan ere, Dominguezek uste du dokumentalek ikusle kopuru handiak eskuratuko lituzketela aukera emanez gero.

ETB2. Carlos Soberak hartuko du Jorge Fernandezek lekukoa, hura T5ra joan ostean



JON URBE / ARGAZKI PRESS
Carlos Soberak aurkeztuko du aurrerantzean ETB2ko *Date el bote* saioa.

Txoria, eguerdiko lidergoari eutsi nahian

ETBk eskarmentua bilatu du, eguerdiko lehiaketaren emaitza aparte eusteko

Xabier Martin | DONOSTIA

«*Teleberri* aurreko tartean ezin dugu hutsik egin; horregatik, harrobira jo ordez, eskarmentua bilatu dugu, orain arteko emaitzei eusteko bermea behar genuelako». ETBko Programa zuzendari Pello Sarasolaren hitzak dira horiek, eta labur azaltzen dute ETBk Carlos Soberaren alde egindako apustua.

Duela aste batzuk, Jorge Fernandez Mister Espainia izanak Sarasolari esan zion Espainiako T5 kateko *Gran Hermano* saiora zihoala eta *Date el bote* utziko

zuela. ETBko arduradunen artean zabaldu zen kezka ulergarria da. Izan ere, *Date el bote*-k Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan lidergoa du ikusle kopuruan: %30. ETB2ko batez besteko *share*-a %19koa da. Azken datu horrek argi erakusten du *Date el bote*-k duen garrantzia. Gainera, saioa *Teleberri* aurretik izaki, tarte horretan ETBk ikusle kopuru handiena bereganatzen saiatu behar du. Hori guztia kontuan hartuta, ETBk, Globo-media ekoiztetxearekin batera, Carlos Soberari proposamena egitea erabaki zuen. Haren

erantzuna bakarrik behar zuten.

Sarasolaren oharra eta Carlos Soberaren esker ona

Jorge Fernandezi eskerrak eman zizkioten atzoko prentsaurrekoan. Alabaina, Sarasolak beste zerbait esateko ere aprobetxatu zuen: «Bada garaia Madrilgo kateek beste leku batera begiratzen jartzeko. Azken urtean lau aurkezle *kendu* dizkigute, eta guk ez dugu inoren harrobia izateko bokaziorik».

Bestalde, Carlos Soberak argi esan zuen baiezkua eman duela ETBekin duen «harreman ona dela medio». «Saioa hartu dut, baina ETBrako soilik; Telemadrid katerako ez dut eginen», esan zuen aurkezleak.

ESANAK



PELLO SARASOLA
(ETBko Programazio zuzendaria)

«'Teleberri' aurreko tartean ezin dugu hutsik egin; horregatik, eskarmentua bilatu dugu»

«Madrilek lau aurkezle 'kendu' dizkigu azken urtean, eta guk ez dugu inoren harrobia izateko bokazioa»



CARLOS SOBERA
(*'Date el bote'* saioa aurkezlea)

«ETBren proposamenari baiezkua eman diot, etxearekin dudana harreman ona dela eta»

«Saioa aurkezle lana hartu dut, baina ETBrako soilik; Telemadrid katerako ez dut eginen»